

SORMENA

Sormena oso garrantzitsua da pertsonaren garapenerako. Egungo gizartea oso bizkor aldatzen ari da, eta gizabanakoek etengabe aldaketa horietara moldatu beharra dute. Bilentziarik ezarako eta bakerako hezitzaileak garen heinean, gure haurren sormena suspertu behar dugu eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko gai izan daitezen. Sormen horri esker, izan ere, etorkizunean eragozpenak eta gatazkak errazago konponduko dituzte.

Proposatzen ditugun jardueren helburua zera da: jolasean eta lankidetzan oinarritutako dinamiken bidez haurren garapena lortzea.

Gatazka bat (jolas bat) ebazteko lankidetzan diharduen talde batean ezinbestekoa da sormena bultzatzea. Hain zuzen ere, pertsonak izaki sozialak gara, eta gatazka asko konpontzeko, sarritan elkarlanean aritu behar gara helburu komun bat erdiesteko.

Dinamika horien bidez, gure hurrek sormena garatuko dute eta gatazkei konponbide alternatiboak bilatuko dizkiete (konponbide ezbiolentoak, edo gatazkak ukitutako alderdi guztiak pozik uzten dituztenak), ez bakarrik talde barruan, baizik eta eguneroko bizitzan ere bai.